

OZEANO EZ HAIN BAREAN GALDUTA



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Coruña, 1525eko uztailearen 24a. Zazpi ontzik osatutako espedizioa abiatu zen, Moluka uharteak helburu. *Santa María de la Victoria*, *Sancti Spiritus*, *Anunciada*, *San Gabriel*, *Santa María del Parral*, *San Lesmes* eta *Santiago* ziren karabelak eta horietako lau Bizkaiar eginak ziren. Molukei Espezieen Uharteak ere esaten zitzairen eta horixe zen espedizioaren xedea. Karlos V.ak han eta hemen piztutako gerrak ordaintzeko diru premia zeukan, Juan Sebastian Elkano getariarrek Ozeano Barera Amerika Hegoalderetik joan zitekeela frogatu berri zuen eta, hala, erregeak berehala agindu zuen diru-sarrera oparoak ekarriko zizkion abentura. Garcia Jofre de Loaisa (1490-1526) gaztelarra zen espedizio burua, eta Elkano bera haren bigarrena. Ez zen euskaldun bakarra; haren hiru anaia Elkanoekin joan ziren, baita beste asko ere: Gebara, Areizaga, Urdaneta, Uriarte, Gorostiaga...

Zazpi ontzietatik bi berehala hondoratu ziren eta hirugarren bat mutinatu eta Iberiar penintsulara itzuli zen. Beraz, lau karabela iritsi ziren Ozeano Barera. *Santa María de la Victoria* bakarrik iritsiko zen Moluketara. Magallanes itsasartera pasa eta berehala, beste ekaitz batek ontziak sakabanatu zituen eta *San Lesmes*, nagusiki euskaldunek osatua, betiko galdu zen. Robert Langdon historialari australiarrek



WILLEM JANSZON BLAEU


Moluka Uharteetako eskala handiko lehen mapa. 1640an egina, iparraldea eskuinean duena. Mende pasatxo lehenago euskaldunek jositako espedizioa abiatu zen Moluketara.

The Lost Caravel lanean jaso zuenaren arabera, ordea, ontzia ez zen hondoratu eta marinelek arrastoak utzi omen zituzten Polinesiar eta Zeelanda Berrian. XVII. mendean Domingo Bonaetxea getariarrek nahiz Cook kapitainak topatu omen zituzten arrasto horiek: mendebaldeko ezauzgarriak bertako zenbait aurpegitan, agur esateko modua, itsasoan orientatzeko metodoak... Eta Bonaetxeak gurutze bat ere ikusi omen zuen.

Espedizioa irten eta urtebetera, 1526ko uztailearen 30ean hil zen Loai-

sa, eta handik astebetera, Elkano bera. Toribio Alonso de Salazar Enkarterrietako diruzaina izan zen haien ordezkotako irailaren 5ean Lapurren Uharteetara –egungo Marianak– iritsi zen. Magallanesen espedizioa kide bat topatu zuten han, ezustean. Gonzalo de Vigo galiziarra zen, biluzik zegoen, “ilea ipurmasaitetaraino” iristen ziztaion eta bertakoen hizkuntza ikasia zuen.

Espedizioa abiatu eta hamaika urtera itzuli zen lehen marinela Iberiar penintsulara: Andres Urdaneta ordizierra zen. ■



Edison eta tatuajeak

Thomas Alva Edisonek (1847-1931) 1.000tik gora patente lortu zituen. Batzuk oso ezagunak: fonografoa, bonbilla gorriak, kinetoskopia... Beste batzuk ez hain ezagunak, hala nola, *stencil-pen* edo txantiloiak egiteko makina elektrikoa, 1876an patentatua. Gailuak papeira zulatu eta zuloetan tintadun zigilua jartzen zuen. Kopia egiteko balio zuen,

baina, zenbait egokitzapen eginda, azala tindatzeko ere erabil zitekeen. Hala, tatuatzeko makina elektrikoaren aitzindaria izan zen Edison arkatza. Gainera, badakigu Edisonek tatuaje bat zuela eskuineko besaurrean, bost puntu soilek osatua, baina ez dakigu nola egin zioten. Bere buruari egin ote zion, asmakizunaren erabilera berria probatzeko? ■